

UPV/EHUko A TALDEKO GESTIOKO TEKNIKARIEN ESKALA- EKONOMIA ESKALAKO KARRERAKO FUNTZIONARIO IZATEKO OHIKO HAUTAKETA PROZESUA.

EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEAREN ERABAKIA

Aipatutako prozesuaren epaimahaiak 2024ko otsailaren 23an hartutako erabakiaren aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu da (I.eranskinean dago zerrendatuta). Erabaki horren bidez, oposizio-faseko behin-behineko emaitzen aurkako erreklamazioak ebatzi eta fase horretako behin betiko emaitzak onartu ziren.

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 118.3, artikuluan xedatutakoaren arabera. Epaitegi honek honako hau erabaki du:

LEHENENGOA. – Hamar lanegunen epea ematea, honako erabaki hau argitaratu eta biharamunetik abiatuta, ariketa egin zuten egoki irizitako alegazioak aurkez ditzaten. Errekurtsoa UPV/EHUko Enpleguaren Atarian kontsulta (https://gestion-enplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/) daiteke, II.eranskinean.

BIGARRENA. – Alegazioak EHUko egoitza elektronikoaren bidez aurkeztu behar izango da. (<https://egoitza.ehu.eus/eu/registroelectronico>) [AZPkoen 2022ko LEPa. Dokumentazioa aurkeztea](#) prozedura aukeratuz.

Horretarako, hauetako ziurtagirietako bat erabili beharko da: UPV/EHUko langileen ziurtagiri elektronikoa, lizenperen ziurtagiri digitala, NAN elektronikoa, edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionalaren ziurtagiria (FNMT-CERES). Era berean, eskaria aurkeztu ahal izango da sektore publikoko beste edozein erakunderen erregistro elektronikoan eta, ohiz kanpoko kasuetan, erregistro gaietan laguntzeko UPV/EHUren bulegoetan, aurrez aurre.

Esteka honetan ikus daiteke non dauden eta zein ordutegi duten bulegoek: http://www.ehu.es/oficinas_registro.html

Beren idazkia posta-bulegoetan aurkezten dutenek UPV/EHUko Gerentzia/ Pertsonal Gerentziaordetzari bidali beharko diote, eta UPV/EHUko Leioako Liburutegiko eraikineko helbidera bidali (Sarriena auzoa z/g, 48940) eta aurkeztu beharko dute posta zerbitzuak arautzen dituen errege dekretuan zehazten den moduan (1829/1999 Errege Dekretua, abenduaren 3koa, 31. art.).

Leioan, sinadura elektronikoan agertzen den datan
Epaimahaiko idazkaria